

ENDEKA PENA

Manipulazioaren koreografia sotila,
engainuaren dantza isila: norberak nahi duena
sinestearen ikuskizuna has dadila.

Euskarak biziraun zezan sekulako lana,
eta, hori gutxi balitz bezala, Frankismoaren zama.

Eskerrik asko herritar, guraso,
aitita eta amama,
zuei esker iritsi baitzen
euskara hurrengo belaunaldiengana.

Euskaldunok erdaraz komunikatzea
kontraesan ezin tristeagoa, horra.

Ez garenaren lur elkorra.

Ez garenaren (u)bide lehorra.

Eta euskaraz dakitenak erdaraz bizitzea
iruditzen zait hitsa, mingarria, bortitza eta gogorra.
Horrela ordaindu behar al dugu aurreko belaunaldikoen
nahiz arbasoen ahaleginarekiko dugun zorra?

Zertan datza eta zertan dabil gaur egungo abenda?

Kanpokoari adi, ene barruko zauria ezin senda;
are gehiago: gaiztotu egiten da.

Nik ere badauzkat buru barnean
erdarazko hainbat zerrenda.

Hala ere, saiatzen naiz gobernatzen ene azienda;
izan ere, euskara arnastea, jatea eta edatea
bezalakorik ez da!

Eta nahiz eta arlo zein zehaztasun guztiak euskaraz egon ez,
zorionez baditugu kalitate oneko eta askotariko hainbat, eredu, artelan
nahiz ekoizpen, baita ere haietaz gozatzeko zenbait leku zein baliabide
edota haiek erosteko hainbat denda.

Halaber, ziur nago erdaren nagusitasuna ez dela ez zorizkoa
ez kasualitatea ez ustekabe(ko)a: konbentzituta nago alboko bi
estatuek ondo baino hobeto zeukatela eta daukatela diseinatua,
planifikatua eta antolatua beren helburuak lortzeko ekintzen agenda.

Globalizazioak, Frantziak eta Espainiak nahi gaituzte irentsi;
guk, ordea, ezin dugu etsi.

Amore ez ematea ez da kontu heroiko bat: euskaraz normaltasunez,
naturaltasunez, askatasunez eta alaitasunez
bizitzea behar genuke erdietsi.

Geure hizkuntza behar genuke
ezagutu, baliatu, sustatu eta miretsi.

Gure ezpainetan hura behar genuke dantzarazi:
ez iezaiozu zure ahoa hertsu.

Geuk erail behar al dugu lur honetako hizkuntza?

Nahi nuke hori ez sinetsi.

Oraindik ere euskaldunak gara; horrela jarraituz gero,
zer izango gara etzi?

Zapelatza, arranoa, saia edo mirua,

erdarak gure inkontzientean nagusitu daitezen,
Espainiak eta Frantziak erruz xahutu eta xahutzen dute dirua.

Eta lortzen ari dira beren helburua.

Eusko Jaurlaritzak ere badu bere ardura: Eitb-n erdara erruz, eta gure
zergen zati bat zenbait erdal hedabideren publizitatearen iturburua:

Galdu al dugu burua?

Zein da euskararen egungo egoeran norberak duen arduraren aurrean
gutako bakoitzak jartzen duen estakurua?

Inork ez al ditu entzuten eta aintzat hartzen

euskaraz bizi nahi dugunon oinazea zein lanturua?

Horra hor ondorioa: erdara ez da mirua, baizik eta
euskararen habian, kukua.

Badakite hala euskara nola euskaldunok ez garela katuak.

Ez dauzkagu zazpi bizitza, eta

hau izango da gure hizkuntzaren nahiz gure patua:

guk geuk erailko dugu

gure hizkuntza erasotu eta zanpatua.

Espainiar zein frantziar nazionalisten estrategia eraginkorra
eta euskaldunon jarrera manipulatu zein malapartatua:

euskaldunon ahoetan erdara nagusi

eta euskara alboratua.

Eta, gainera, hau jasan behar: erdaldun elebakarrak

euskaldun elebidunoi eskatzen "errespetua",

guregan errotu nahian gaizto eta erru sentimenduak.

Zertan datza haien sekretua?

Euskaldunok edukitzea erdaraz erabat inguratuak,

hura izan dadin hizkuntza arrakastaz barneratua;

gure neuronak izan daitezen erdaraz

modu eraginkorrean galkatuak,

eta hizkuntza horiek izan daitezen

elkarrekin komunikatzeko lehen hautua.

Inork ez dio eskatzen ezein euskalduni

(“zahar” edo “berri”) euskara perfektua.

Ezta erdal elebakarrari euskaraz bizitzea ere: hark guri erdaraz

hitz egin arren, guk berari euskaraz

mintzatzeko beste ulertzean datza kontua.

Eta ene buruari galdetzen diot zer leku den hau:

Salamanca, Cuenca, Leon edo Bergara?

Kalera irten eta ia denak gazteleraz;

bere etxean bazterturik euskara.

Euskal Herrian ote gaude, edo Guadalajaran?

Nik ez nuke euskaldun izan nahi

euskararik gabe biziko bagara.

Eta guk bultzatu ezean,

geure hizkuntza ez da jalgiko plazara.

Hain erakargarriak, liluragarriak, ederrak eta

eraginkorrak al dira frantsesa eta gaztelera,

uzteko euskara alde batera?

Ematen du ez dela axolazkoa euskarak

ematen digun izaera.

Erosotasunaren aldeko jarrera,

“indar handia” eskatzen baitu
euskara ikasteko edota hobetzeko saiakerak,
eta aisialdi nahiz kemen mugatuak ditugu:
beraz, lehentasunak ezarri beharraren afera,
nahiz eta askori ahaztu euskarak ematen
dituela bizitzarako hainbat aukera.

Garena egiten gaituen hizkuntzarekiko
borondate eza; tamalez, hark ez du jasoko gure txera.

Eta harekin batera galduko da
euskaldunon mundu ikuskera.

Agian gure hizkuntza zoragarriaren barne logika, zentzua
edertasuna eta baliagarritasuna “behar bezala” ez
helarazteak ere badu zeresana haren galeran.

Edo, apika, hizkuntzaren konplexutasuna
edota hura irakasteko erak,
baita ere, beharbada, eguneroko
bizimoduko eredutza eskasaren barrerak.

Horretaz guztiaz gain, gizakion
barne baldintzapen egoera.

(Beren etxean edota handik at) beren jatorriko
ama hizkuntzari muzin egiten ez dioten edota egin nahi ez dioten arren,
guri hori egiteko eskatzen edota exijitzen digute batzuek, gainera.

Nahiz eta gure baitan dozenaka tona porlanen azpian eta hor nonbait
kukukurik izan, denok gara enparauen min nahiz pozekiko sentiberak.
Hori bai, ezertatik ez salbuetsiagatik ere, guk gainerakoena ulertu behar;
nolakoa da, ordea, haien gureganako jokamoldea, ulerbera?

Arrazoi gehiegi euskararen egoerak

egin ez dezan hobera.

Hala ere, badirudi azkar ahazten zaigula
munduak funtzionatzen duela
egiten dugun horren arabera.

Euskaldunok euskara baloratzen, errespetatzen eta erabiltzen ez
badugu, nor animatuko da hura estimatu, errespetatu eta ikastera?

Atera behar genuke euskara
buruetatik, bihotzetatik, etxeetatik, ikastetxeetatik,
euskaltegietatik, erakundeetatik... kalera.
Bizi dezagun eta gailendu dakigula
euskaraz bizitzearen plazera!

Indarra euskaraz bizitzeko baliatzeko
borondate eskasa eta erdara nagusi buruan.
“Ni euskalduna naiz”, pero vivo en castellano
ou en frances eguneroko bizimoduan.
Askeak direla eta erdara berek hautatzen dutela
sinetsarazten dien ilusiozko zizarea amuan,
Eta, kasurik politenean, euskararen autopsia
irakurritakoan, damua. Damu antzua.
Hori guztia gutxi balitz bezala, badirudi euskaraz
bizi izateko eskubidea ez dela euskara ikasi nahi
ez izateko gogoia bezain garrantzitsua.

Beste batzuei, aldiz, bost axolako zaie
gure hizkuntza desagertzea, eta hori da tristea.
Goibelagoa, ordea, beste batzuek egingo dutena:

jendaurrean, berri ituna dela adierazi
eta ezkutuan ospatzea.

Eta hor dirau euskararen aurkako oldarrak.
Gainera, euskaldun asko ematen bere hizkuntzari bizkarra.
Nolatan izan liteke gure jokabidea horren traketsa
eta espainiar eta frantziar askorena hain ozarra?
Horrez gain, inork ba al daki zenbat euskaldun behar diren
erdaldun batek ikasteko euskara? Denok dakigu, ordea, zenbat
erdaldun behar diren euskaldun talde batek
erdaraz hitz egin dezan: bakarra.

Gutxiagotasun sentimenduetan itota
jendea eta gazteria,
hemengoa ez den hizkuntza baten bizi diren
euskaldunen nortasun eria.

Eta, gainera, erdaldun elebakarren ahoetatik entzun behar euskara
ezarri egiten diegula: ez dute errespetatzen euskal biztanleria.

Eta argi gera bedi ez nagoela erdaren aurka:

haiek jakitea begitantzen zait oparia.
Era berean, erdaldunek euskara jakitea,
guretzat begirunea eta haientzat hobaria.

Eta nik nahi nuke Euskal Herria
izan dadin euskarazko kalakaria,
ezen ez sinbolo bat, jendearen herraren itu
edo mespretxatu beharreko huskeria.

Guk erdaldunen hizkuntz eskubideak errespetatu ditzakegu

(eta egiten dugu); haiek gureak ez, ordea: hori da egia.

Guk, hala ere, gogo onez onartu genien

autosuntsiketaren larderia:

gu izatea ehizakina eta ehiztaria.

Bitartean, alboko bi erdaren iturrietatik irteten da euskararen emaria,
eta gero eta kalitate kaskarragokoa da handik irteten den edaria.

Eta, horrez gain, euskaldunon “askatasuna” errespetatzearen falazia:

Erdara hezur-muinetaraino sartu ziguten: batetik, guk erail
dezagun euskara eta, bestetik, hark ikasgai huts izan behar lukeela
nahiz erdara guk aukeratzen dugula esateko: bikaina, estrategia!

Desagerrarazi egin nahi gaituzte: gu, geure hizkuntza

eta “txikion” bizi zein mundu ikuspegia.

Zer gertatzen zaigu: hain azkar ahaztu al

zaigu euskara dela euskaldunon aberria?

On egingo liguke (bekokian)

tatuatzeak Artzeren esaldia.

Gaztelaniaz badakigunez, beti guk aldatu behar izaten

dugu hizkuntza: non da korrespondentzia?

Nahiz eta nire ustean egoera zein jarduera asko bateragarriak izan eta
aldarte edo barne egoera egokia lehenago edo geroago agertu,
biziki aintzat hartzen eta errespetatzen dut Maslowren piramidea.

Era berean, nornahi da hizkuntza bat

ikasteari uko egiteko askea;

hari euskara hutsean hitz egitea, berriz,

euskaldunon askatasunaren adierazpidea.

Agian, hori da jarrera; hori da (gure esku)bidea.

Bestela, modu berean jarraituko dugu:
jazartuok jazarleei egingo diegu mesedea.
Non galdu zitzaigun euskaraz bizitzeko oldea?
Ez al zenuke zeure etxean bertako hizkuntzan lasai
eta alai biziz indartu nahi euskararen uholdea?
Gogora ezazu: euskara hor barnean duzu gordea.
“Erdaraz sakonago eta zehatzago komunikatzen naiz, ordea”.

Eta zer iruditzen zaizu, kasualitatea?
Ez al zenuke eraldatu nahi zure jokamoldea?
Jakina, indar handia eta denbora dezente
baliatu behar da izateko lokabea.
Horrek merezi du, hala ere, zu zeu izan zaitezen
zeure buruaren jabea.